



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Lionel Meunierrek zuzendutako Vox Luminis belgikar talde birtuosoak Henry Purcell-en *King Arthur* interpretatuko du larunbatean Arriaga Antzokian

- Egile ingelesaren bost ekitaldiko erdi-opera ezaguna kontzertu dramatizatu eran eskainiko da, Isaline Claeys-en eta Simon Robson-en dramaturgiarekin, eta Miren Gaztañaga antzezlearen parte hartzeaz.

Bilbon, 2024ko maiatzaren 27an.- *King Arthur*, Henry Purcell-ena, Arriaga Antzokian interpretatuko du **Vox Luminis** taldeak larunbat honetan, ekainaren 1ean, arratsaldeko 19:00etan. Bilboko publikoak kontzertu dramatizatu formatuan jasoko du bost ekitalditan banatutako erdi-opera ezagun hau.

Londresen arrakasta handiz estreinatua, eta Madrilen eta Bartzelonan txalo zaparrada handia jaso ondoren, Arriaga Antzokira dator orain *King Arthur*. **Isaline Claeys**-ena da dramaturgia, **Simon Robson**ekin lankidetzan. **Lionel Meunier** da musika-zuzendaria, Vox Luminis Belgikako talde zoragarriaren buru, eta interpretazio-maila oso goian jarri dute. Meunierrek berak 2004an bultzatutako talde entzutetsuak, berriro frogatzen du zergatik deitzen duten munduko musika-tenplurik onenetan jotzeko. *King Arthur* kontzertu dramatizatu honetan, Miren Gaztañaga aktoreak narratzaile gisa dihardu.

King Arthur Henry Purcell konpositore britainiar bikainaren azken lanetako bat da, garai hartako obrarik berritzaileenetakoa, eta 1681 eta 1684 bitartean Charles II.ak edo Charles II.arentzat agindutako lau opera errealetako bat ere bai. John Drydenek, XVII. mendeko Ingalaterran gehien saritutako poetak, testuak idatzi zituen haietako birenzat; *King Arthur* izan zen horietako bat..

Obrari buruz

Arturo erregeak eta bere bikotekide Merlinek tinta asko isurtzea eragin dute, baina John Drydenen lumapean eta Henry Purcell-en musikarekin euren istorioari buelta emango diote. Testuak Britainia Handiko historiako kapitulua hartzen du, non saxoiek, beren lurraldea birkonkistatu nahian, britainiarrei eraso egiten dieten San Jorge egunean. Termino absolutuetan, giza ergelkeriak zalantzan jartzen dituen Naturaren indarrak dira gaia: jabetza, irabazia eta gaizkia. "King Arthur" hain arrakastatsua izan zen, non aldizka berrargitaratu baitzen XVIII eta XIX mendeetan.

Hemen, Vox Luminis-ek beste ikuspegi batetik jorratuko du. Basatiak eta leunak, "izan gabe" diren izakiak, baso sorginduan ezkutatzen dira eta maitasunari abestuko diote, goroldioaren gaineko eguzki-argia eta zentzumenen esnatzeari, eta ahotsarekin bidaiariaren azala laztanduko dute.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 20 eta 42 euro artean (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

King Arthur

Interpretatzaileak

Ensemblea: **Vox Luminis**

Testuak: **Isaline Claey's & Simon Robson**

Antzezlea: **Miren Gaztañaga**

Kontzertinoa: **Tuomo Suni**

Zuzendaritza artistikoa: **Lionel Meunier**

Sopranoak: **Erika Tandiono, Carine Tinney, Zsuzsi Tóth, Kristen Witmer**

Altuak: **David Feldman, Damien Ferrante, Jan Kullmann, Korneel Van Neste**

Tenorrak: **Olivier Bertin, Rory Carver, Jacob Lawrence, Kieran White**

Baxuak: **Marcus Farnsworth, Lionel Meunier, Sebastian Myrus, Lóránt Najbauer**

Biolinak I: **Tuomo Suni, Jacek Kurzydło, Lorea Aranzasti Pardo**

Biolinak II: **Antina Hugosson, Birgit Goris, Jorlen Vega**

Biolak: **Johannes Frisch, Raquel Massadas, Wendy Ruymen**

Biولين baxuak: **Ronan Kernoa, Edouard Catalan, Octavie Dostaler-Lalonde**

Violón: **Benoît Vanden Bemden**

Oboe I: **Benoît Laurent**

Oboe II: **Gustav Friedrichson**

Oboe tenorra: **Armin Köbler**

Peak flauta: **Lionel Meunier, Benoît Laurent, Armin Köbler**

Fagota: **Lisa Goldberg**

Tronpetak: **Rudolf Lörinc, Sander Kintaert**

Perkusioa: **Koen Plaetinck**

Klabea/Organoa: **Anthony Romaniuk**

Lautea y gitarra: **Simon Linné**

Tiorba eta gitarra: **Justin Glaie**

Más información:

Comunicación - TEATRO ARRIAGA

Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307

comunicacion@teatroarriaga.eus

www.teatroarriaga.eus